

Berbaren jantzan

Doinua: Zazpiak oihal batetik

Urte bi luzez eragindako
distopiaren ostean,
hamaika lagun mozal gaberik
gabiltz umore betean.

*Berbaren jantzan gogoz ibilten
gara plaza eder batean,
alor lehorra bizipoz urez
bustirik jente artean.*

Mututasuna eta bildurra
datozke danon kaltean,
kantuz dabilen herriak poza
jartzen dau bihotz gaztean.

Berbaren jantzan...

Udabarriak lorez alaitu
jartzen dau landa kolpean,
gaur bere bardin gabiltz kantari
giro eder ta gaztean.

berbaren jantzan...

Bertso erronkak eragiten dau
ibiltea atakean,
jokabide horrek ezarri ohi dau
geure barrua bakean.

*Berbaren jantzan gogoz ibilten
gara plaza eder batean,
alor lehorra bizipoz urez
bustirik jente artean.*

Barrutik hasi eta kanpora
ordu hauen bitartean,
lagun artean parako gara
zorionaren atean.

Berbaren jantzan...

Gazte eta zahar, zahar eta gazte
dan ALBEren gerizpean
kantu botikak biztu gaizala
bardin datorren urtean.

Berbaren jantzan...

Josu Landeta Egurrola